

erdiko kaira

Musika



Hamar urte inguru daramatza Herri Irratiko Sektor Rock irratsaioak larunbat arratsaldetan irrati frekuentzietan euskal panorama musikalaren erreposoa egiten. Urte hauetan guztietan Gregorio Galvez irrati esatari beteranoak eraman du saio honen gidaritza, baina orain lekukoa Inaxio Esnaolari pasatu dio.

Belaunaldi aldaketa rockaren uhinetan

Testua eta argazkiak:

LANDER MUNAGORRI

LARUNBATERO, arratsaldeko lauretan, gitarra zorrotzen soinuak ohartarazten du entzulea: Sektor Rockeko saio berri baten atarian dago. Bi ordutan, euskal rocka ardatz hartuta, kontzertuen erreposoa eta panorama euskalduneko taldeen berri ematen du egun Inaxio Esnaolak zuzentzen duen irratsaioak. Sare komertzialetik at, zapatuetan euren txokoa daukate indar gutxien daukaten musika taldeek Herri Irratiko uhinetan, orain hamar urte ingurutik hona. “Egun irratian entzuten den musika klonikoa da, denek antzeko irratsaioak egiteko joera daukate” dio Gregorio Galvez, Sektor Rocken sortzaile eta esatari zirikatzailak. Asmo horrekin, musika alternatiboak irratian daukan oihartzun gabezia betetzeko nahiarekin, astero bi orduz entzuleak irratsaio ezberdin batera hurbiltzeko aukera dauka.

Irrati libreren bateko programa izan zitekeen Sektor Rock, baina Herri Irratia

Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban zabaltzen da, eta gainerako irrati orokorrekin lehia egiten du. Gregoriok dioen bezala, “irrati libre bateko eta ofizialista baten arteko irratsaioa da”; formula zaila da lortzeko, “baina lortzen ari garela uste dut”. Horretarako ezinbestekoa da bere ustez jesuitak eskaintzen dieten independentzia, beti nahi dutena egiten utzi dietela azpimarratu baitu: “Jesuitak ere beti independenteak izan baitira”.

Askatasunean esperientzia

Aske sentitzen dira Inaxio eta Gregorio irratsaioa egiteko garaian, nahi dutena esateko aukera daukate, inongo arrazoirik eman beharrik gabe, eta alderdi hori nabarmendu dute.

Orain 40 urte etorri zen Gregorio Galviziatik Donostiara irratian lan egitera, Herri Irratiko estudioetara. Urteetan ofizio izan zuena

afizio bezala hartu zuen denborarekin, berez irakaslea baita. Hala ere, urte askoan Club 44 gaueko irratsaio musikal arrakastatsua egin zuen, eta beste inon entzun ez zitezkeen taldeen berri ematen zuen programa hartan. Ezin da aipatu gabe utzi Los 40 Impresntables izenpean egiten zuen programa ere. “Donostiako eskoletako ikasleek mezuak bidaltzen zizkiguten, elkar agurtzeko, edo besterik gabe nahi zutena esateko, orduan ez baitzegoen telefono mugikorrik”. Irratsaio oso dibertigarria zela oroitu du galiziarrek, baina saioa zentsuratu egin omen zioten. “Jesuitak eta Mundaiz ikastetxeak lehendik ere oso gaizki moldatzen ziren; ikastetxekoei ez zien graziarik egiten irratsaioak, eta halako batean, saio batean esan nituenak aitzakiatzat hartu, Herri Irratiko zuzendariari deitu, eta programa kendu zidaten”. Mundaizeko zuzendariak irratsaioa kentzeko ematen zituen arrazoiaren artean bat, honakoa: Gregorio irakasle izanda, nola zirika zitzakeen ikasleak era horretan. Hala ere, delako zentsura horri aurre egin eta irratiari jarraitu du; Musiker Stui izeneko beste saio batean musika komertzialeko berriak eman zituen “betiere *malaletxe* pixka batekin”.

Inaxio Esnaola esatari gaztearen kasuan, esperientzia apalagoa baldin badauka ere, ez da nolana hikoia. Ortots zigilu propioa dauka –ikus ARGIAren 2155. zenbakian eskaini genion erreportajea–, eta Gregoriori bere diskoetxeko bi talde Sektor Rock irratsaiora eramateko eskatu zionean hasi zen bien arteko hartu-emana. Mikrofono aurrean Ttan Ttakun irrati librean hasi zen orain zortzi urte, musikaren inguruko saioak eginez. Nolanahi ere, “Burdinola heavy metal irratsaioarekin aurrera segitu dut” dio donostiarrak. Euskadi Irratian kirol arloan ere ibilia, Sektor Rockeko gidaria dugu egun, eta rocka oinarri hartuta, estilo ugari jorratzen ditu, punka, popa, hardcorea, ska, indie, garage... eta nola ez metala. Estilo honen jarraitzaile sutsua baitugu Inaxio. Hala ere saio ahalik eta irekiena egiten saiatzen da, eta “orain arte Gregoriorik bikain egin duenari jarraipena” ematen. Onartu du, halere, “ez dela erraza bi orduko musika saio bat zuzentzea, soilik Euskal Herriko musikari dagokiona. Abanikoa ireki behar duzu eta estilo ezberdinetako taldeei lekua egin behar diezu. Gure musika errealitatearen ispilua uhinetara eraman behar da”, nahiz eta talde gazteek lehentasuna izan ohi duten.



Ezkerrean Gregorio Galvez, eskuinean Inaxio Esnaola. Aurrenekoak hamar urte inguruz gidatu du Herri Irratiko Sektor Rock musika irratsaioa. Esnaolaren ordua iritsi da orain. Bere ahotsaren bidez ezagutuko ditugu Euskal Herriko panorama musikaren berrikuntza esanguratsuenak.

Hutsunea betetzen

Musikak irratiari bizi duen egoerari buruz mintzatzean, Inaxiok garbi dauka: “Irratsaioari ez da falta, jendearen interesa baizik. Globalizazioak gure kulturaren eragina izan du, eta egun kontzertu jakinetara bakarrik joaten gara, ez dira talde hasiberriak babesten”. Halere gurean astebururo musika emanaldi andana dago, “hiru milioi biztanleko beste hiri batean ez dago horrenbesteko mugimendurik” zehaztu du Gregoriorik. “Eta erakundeek bultzatzen al dute hau guztia?” aieratu du galdera.

Irrati uhinetan Sektor Rocken tankerako irratsaioak badira, nahiz eta gehienak irrati libreetan dauden; hor daude esaterako 3Kortxea, Hala Bedi Irratian; Bide Okerretik Zuzen, Txolarre irratiari... Baina irrati libre hauen esparrua mugatua da, eta horretarako dago Herri Irratiko larunbateroko saioa, “hutsunea betetzen saiatzen gara, baina lortzen dugun ez dakit” dio Inaxiok. “Gazteak gazteria pozoitu du urteetan, eta irrati formularen joera hartu dute audientziarengatik” gaineratu du.

Irrati formulari dagokionez, “musika entretenitzeko tresna bihurtu” dutela dio esatari gazteak; “entretentzea da euren funtzioa, eta horrela izanik, ez dut gaizki ikusten. Kaltea egiten dutela musika interesgarri asko jartzen ez dutelako? Baina hori bada eta ez da irrati formularen errua. Gu guztiona da” zehaztu du.

Bide horretatik, Gregoriorik oroitu du nola “gazteagoa nintzenez, gehiago borrokatzen nuen 40 Principales-en aurka. Barre egiten nuen euren kontura, baina zahartzen hasten zarenaz zeurekiko diozu: ez du merezi, belaunaldi bakoitzak merezi duena dauka”. Hala eta guztiz ere, Inaxiok eta Gregoriorik irratsaio erabat askea eskaintzen duten heinean, eta hemengo kontzertu eta talde berriak babesten jarraitzen duten bitartean, jarraituko dute erakusten badirela irratiari oraindik merezi duten programak. ■